

XI. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

Jainko Jauna, Zugan itxaroten dutenen indarra,
entzun bihotz onez gure otoitza;
eta Zu gabe gizakiaren ahuleriak ezer ez baitezake,
emaguzu beti zure graziaren laguntza;
zure aginduak betez,
Zuretzat atsegingarri izan gaitezen gogoz eta egitez.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ez 17, 22-24

Zuhaitz zapaldua Nik zutiarazten dut.

Ezekiel Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna:
«Zedro haundiaren gain-gainetik adar bat hartuko dut
eta landatuko;
haren adar muturretik kimu bat kenduko dut,
eta mendi garai baten gainean landatuko.
Israel mendi haundiaren gainean landatuko dut;
adarrak zabalduko ditu eta fruituak emango;
eta zedro tantai egingo da.
Era guztietako hegaztiak biziko dira haren azpian;
haren babesean egingo dute habia.
Eta lurreko zuhaitz guztiek ezagutuko dute,
Ni naizela Jauna:
zuhaitz haundia zapaltzen duena,
eta zapaldua zutiarazten,
zuhaitz hezea ihartzen, eta iharra hezetzen duena.
Nik, Jaun honek, hala esan dut, eta hala egingo».

ERANTZUN SALMOA: Sal 91, 2-3. 13-14. 15-16

R/. On da Zuri eskerrak ematea, Jauna.

On da Jaunari eskerrak ematea,
eta zure izenari, Goi-goiko, eresi egitea;
goizean iragartzea zure maitasuna,
eta gauez zure leialtasuna. R/.

Loratuko da zintzoa palmondoa bezala,
haziko da Libango izaia bezala;
Jaunaren etxean landatua,
gure Jainkoaren atarietan loratua. R/.

Emango dute uzta zahartzaroan ere,
mardul eta gordin egongo dira.
Iragarriko dute zein zuzena den Jauna,
nire harkaitza, Beregan gaiztakeria ez daukana. R/.

II. IRAKURGAIA: 2 Kor 5, 6-10

*Ahalegintzen gara Jaunari atsegingarri izaten,
bai gorputz honetan, bai gorputz honetatik kanpora.*

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Beti uste onez gaude eta badakigu, gorputz honetan bizi garen arte Jaunarengandik urruti gaudela, erbestean. Sinesmen argitan baikabiltza, geure begiz ikusi gabe. Uste on hau dela eta, nahiago dugu gorputz honetatik atera, Jaunarekin bizi izateko.

Horregatik, ahalegintzen gara Jaunari atsegingarri izaten, bai gorputz honetan, bai gorputz honetatik kanpora. Guztiok Kristoren auzitegian agertu behar baitugu, bakoitzak berea hartzeko, ona ala txarra, bere gorputzaren bidez egin duenaren arabera.

EBANJELIOA: Mk 4, 26-34

Aleluia

R/. Aleluia.

V/. Hazia, Jainkoaren hitza da; ereilea, berriz, Kristo;
Honi aditzen dionak, izango du betiko bizia. R/.

*Hazirik txikiena da
eta barazki guztiak baino haundiagoa egiten da.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zion jendeari: «Jainkoaren erreinua lurrean hazia ereiten duen gizonaren antzekoa da: gizona lo dago gauez eta jaikitzen da goizean; hazia ernetzen da eta hazitzen doa, eta gizonak ez daki nola. Bere-berez ematen du lurak uzta: lehenengo lastoa, gero burua, eta ondoren galburuaren beteko alea. Eta alea prest dagoenean, igitaia erasten zaio, helduak baitaude garaiak».

Beste hau ere esan zion: «Zeren antzekoa dela esango dugu zeruko erreinua? Zer parabolatan adieraziko dugu? Mostaza haziaren antzekoa da: lurrean ereiten denean, hazirik txikiena da; baina jaiotzen denean, gora doa, eta barazki guztiak baino haundiago egiten da; adar haundiak botatzen ditu, txoriek haren itzalpean habi egin ahal izateraino».

Horrelako parabola askotan hotsegiten zion hitza, haiek uler ziezaioketen neurrian; eta parabolarik gabe ez zion hitzegiten; bere ikasleei, ordea, bakarrean, dena agertzen zion.

Oparigaien gainekoa

Jainko Jauna, orain eskaintzen dizkizugun dohainetan
aurkitzen ditugu bizitza honetarako janaria
eta bizi berriaren sakramentua;

egizu, gure gorputz-arimak ez daitezela gerta inoiz ere
hauen laguntzarik gabe.

Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Jaunartze honek, Jauna,
fededunak Zurekin bat direla adierazten du;

ekar dezala

zure Elizan guztiok elkarrekin bat egitea.

Jesu Kristo.